

Larramendi'ren egun aundia Salamanca'n

**Manuel Garagorri "Larramendi'ren" omenez
Leiola'n 1966 urteko agorrean egin zan
billeran emandako itzaldia.**

- I. Liburu azaldu-berri bat dala-ta, Larramendi idazten eta euskera lantzen asi zaneke urte-mugak aldatu ta aurrerratu bearra.
- II. XVII-garren gizaldi-azkenetatik XVIII-garrenaren asiera-bitarteko sermoe-liburua da, ziur askorik Lardizabal'dar Martin segurrarak bildu-sermoez osatua.
- III. Liburu orren ingurrazti, liburuxka, edo alde bat, **Oración Fúnebre** izenez, 1724-an Lardizabal'ek argitaldua da.
- IV. Liburuxka edo liburu-alde orrek Larramendi'ren latin-itzaldia ta **Evs cara** olerkia dakarzki, ta besteren olerki-ale batzuk lotuz, Lardizabal eta Larramendi bien idazlantxo batzuk. Gai billa Lardizabal'ek eman-pausoak ta liburuxkaren gañerako zertzeladak.
- V. Olerkiak. Olerki-azalpen oietan ze lan ditun bakoitzak bere, ta nun dauden bataren eta bestearen lan-mugak.
- VI. **Evs cara** olerkia, gero **El imposible vencido**-an irarria, gipuzkoar estudiante batek olerki nor-geigoka batean itzez emana; Larramendi «maixua» bera «estudiante» ori izaki.
- VII. Olerki nor-geigoka orrek, betiko lepotik burudun erakusten digu Larramendi; baño euskeraren ohore-mendekua ez da Larramendi'ren euskaltasunaren zio edo arrazoi bakarra; ba du areagorik eta oberik.
- VIII. **Evs cara** ta **Oración Fúnebre**: orra Larramendi'ren idazki berri ta, oraindañokoz, aurrenekoak; **De la antigüedad** liburua baño iru-lau urtez leenagokoak.

I

LIBURU-IZEN ETA DENBORA-MUGA ALDATZE

Larramendi aitatu utsak ziñezko euskaltzale ta euskalariaren gogorapen eta irudia piztu izango zigun beingoan geientsuoi, orain-gutxi arte, noski. Ziñez ordea, ori ezezik, besterik ere ba da Larramendi. Beste alde-on askorik bere alde-on, teologi-maixutza ta sermogintza beñepein eztago Larramendi'ren izate osoari ez iñausi ez erauzterik. Euskalariz aurretik, ain zuzen, irakasle ta sermolari ezagunagoa izan bait-zan Larramendi gaztea orduko Salamanca'n. Jardun bi otan Españi guztira zabaldu zan aren sona ta entzutea (1).

Larramendi *euskal* sermolaria Loyola'n sortua dugu, «El día 25 de Marzo (de 1735) predicó la doctrina, y ejemplo el P. Manuel de Larramendi, y fue la primera vez que había predicado en vascuence» (Loyola, *Diario Histórico*).

Salamanca'koa, ordea, Larramendi euskaltzale euskalaria. Alabearez, Tormes'ko urian eta Larramendi itzleriaren abaroan eta egun argirik argienean sortua dugu Larramendi euskalari eta euskal idazlea. *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España* aitatu izan da Larramendi'ren leen-liburu bezela oraiñarte, *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*'ren aurre-mutil eta bidegille, 1728-an ark Salamanca'n argitara emana. Baño ez da aitaturko ori andoaindar euskaltzalearen leen-gutuna; ezta, beraz, 1728 urtea ura euskal idazle estriñatu zan denbora-muga. Liburu-izen eta denbora-mugarriok aldatu bearrean gera orrezkero; aruztuaz aldatu, ziur. *De la antigüedad* liburuari *Oración Fúnebre* dalako batek kentzen bait-dio leen-tokia; eta 1728-ari 1724-ko urteak artzen aurrea. Aldakuntza auetara beartzen bait-gaitu nik orain eskuan eta zuek begien aurrean duzuten liburu mardul zaarkote onek.

II

LIBURU OSOARI BEGIRATUTXO BAT

Pergamin-azalezko liburu zimurra, jakintsuen begi-eskuek aña xaguetzatan erabilia, bere zaarrean berri da guretzat. Sommervogel'en liburu-zerrendara alperrik ziñoazteke onen billa. Azpeitiar Galo Barre-

(1) Cf. Apuntes para la biografía del R. P. Manuel de Larramendi. *Euskal-Erria*, tomo 23 (1890) 214-221 or.

na'ren liburutegian artz zuriaren loa garaiturik, adiskide onen emaitz eta esku-erakutsi, gaur dator egiazko argitara, Larramendi'ri omen-bearez. Liburu izengabea zalakoan orain-gutxi arte egon ba'naiz ere, orain, bizkar zabala arreta aundiagoz miatu ta arakaturik, topa aal izan diot bere lotsa-moduzko izen-burua: tinta kolore-galdu orixkaz goi-ertzean marratuta, *Sermones* dio soil soilik.

Izan ere, dagon bezela osorik eta batera artuta, illeta-itzaldi eta elizjardun-bilduma baizik ez da *Sermones* liburu au: bederatzi liburuxka alkar-josien sorta ta bilduma, ain zuzen. Liburuxka auek, bat edo beste ezik, bakoitza here egille ezagunaren izenpean, nun-noiz-nork argitaratuak diran jakingarriz osatuak ba datoz ere, ez du egille ezagunik liburu osoak. «Bederatziko» au ez bait-da aita baten ume-pamilia, ez bateko bederatzikiak, ez aldian-aldiko senideak, ez izaki. Ez dira, ezta ere, alkar-lanean, bat buru dala, askok piztutako sorkaria. «Batasun» au, nola-bait esan bear eta, aitagintzako *corpus* bat ezik, medikugintzako *compositum* edo siames-lana dala esan bear ko. Beraz, liburukote au bakana ezik bakarra, eta norbaitek here sermoi-zaletasunaren aldera maneju erosogorako kopurutua, dala esan bear ko.

Nor biltzalle?

Nor dugu, ordea, orko biltzalle-jostalle ori? Ez dut dudarik egiten: Lardizabal eta Elortza'tar Martin, segurarra. Martin goierritar aundiki au dugu aurreneko liburuxkaren biltzalle-argitaratzalle. *Expresión del que da a luz este papel* izen-burutu du bere itzaurrea, ta bertan damaigu bildu-lanean eman-pausoen berri. Batik bat ere, orri berean aitortzen zaigu Martin orrelako gogo-mokauen zale: «Con esto me determiné... á recoger la Oración Fúnebre, y demás adornos ingeniosos, con el pretexto de cebar el gusto, y la inclinación que tengo á semejantes primores».

Liburuxka bakoitza ain toki ta denbora desberdiñetakoak izateak ez gaitu atzera bear bildumaren aitatzat Lardizabal au ezagutzeko, artaragotu baizik. Bederatzietatik lau Salamanca'n, eta Lardizabal orren aldian, argitaratuak ditugu; eta gañerako guziak (Iruña'koa ezik, agian) Salamanca'kin ba dute ze-ikus. Alañoko ze-ikusia ere ta, oietako bat Juan Antonio Martiñ onen anaiak aurkeztua bait-dago; eta Santiago'koaren iru itzaldietatik bat Salamanca'ko irakasle batena dugu, eta argitaratzeko salamankar maixu batek ontzat emanak iru-iruk (2).

(2) Martin au, Larramendi'ren denboran, «Colegial Huesped en el Colegio Viejo de San Bartholomé Mayor de Salamanca» agertzen zaigu; gerora, Eliz Eskubidea (Derecho Canónico) erakutsi zun Salamanca bertan. Aginpidean, Madril'go alkate, Indietako

Liburuxka auek naasian ez-baizik, guztizko arretaz, berrienaz aurre-ra lekuratu ta ezarriak datozkigu liburu aundiaren altzo zabalean. 1724-koa da aurreneko ta berriena; 1676-koa atzeneko ta zaarena. Salamanca tokiz eta emezortzigarren gizaldiko leen-laurdena aldiz: orra, beraz, Larramendi'ren toki-aldiak bete bete.

III

LARDIZABAL-LARRAMENDI'EN ALKAR-LANEKO LIBURUXKA

Liburu osoan, bederatzi liburuxkaetatik zortzi azkenak alde utzirik, aurrekoari nagokio emen, orrek bai-garamazki, Lardizabal'en eskutik, Larramendi'ren aurrez aurre. Arpegi-orriak onela dio:

«ORACION FUNEBRE / CON QUE EL REAL COLEGIO / DE LA COMPAÑIA DE JESUS / de Salamanca / celebro / LAS REALES EXEQUIAS / de nuestro joven monarca / D. LUIS PRIMERO / de este nombre, / Y ALGUNA NOTICIA DEL APARATO / lugubre que se dexaba vér en la Yglesia / de dicho Real / Colegio. / DALO A LUZ / D. MARTIN DE LARDIZABAL Y ELORZA, / Colegial Huesped en el Colegio Viejo / de San Bartholomé Mayor de / Salamanca.

Con licencia del Señor Maestro-Escuela».

Isillune ugari oar ditzakegu orrialde ontan. Bi gauza bakarrik garbi: *Oracion Funebre*, liburutxoaren izena; ta Martin de Lardizabal y Elorza, argitaratzallearena. Ortik aurrerakoa, alegia, egillea nor eta idaztia noiz

Konseillari (del Consejo de Indias) ta Caracas'ko Comandante General izatera iritxiko da; guzti au, jaiot-erria aaztu gabe, ill-aurretik sort-erriari bere ondasunetatik zati on bat utzi bait-zion.

Beste anaie bat zuan, Joan Antonio. Eliz-gizon, apaizgoaren goi-erpiñeraño igo zan; Puebla de los Angeles'ko Gotzai izan eta, Mexico-ko Gongotzai izendatua, il zan. Aldiz aurretik, Salamanca'n «Subtil Escoto» ren Philosophia irakatsi zuan. Ezagutu ote zuten alkar Joan Antonio'k eta Larramendi'k? Ez dugu baiezko agiririk, baño bearko ezagutu, andoaindarra Joan Antonio'ren anaie Martinen adiskide artua, eta batipat, Losada maixuaren ikasle kuttuna bait-zan, eta Losada'ren philosophi liburua ateratzeko zensore Joan Antonio izan zan. Baño andoaindar maixuaren argiak pizten eta aunditzen ari diran bolara ontarako, Salamanca lagata, Gotzai egiñik, Gipuzko-aldean zebillen Lardizabal au. 1723-an Donosti egunez ekarri zuten Loyola'ra, Idiakez-tarren seme Xabier'i Ordena Txikiak ematera. Urrengo egunean Loyolak eman zion bazkaritara. Idiakez bera ta Peñaflovida'ko kondea lagun artuta, etorri zan Lardizabal Gotzaia (*Diario Histórico de Loyola*, pág. 33-36).

eta nun argitaratua dan, eta gañerako jakingarriak, ixilik utzi dira. Argi-billa liburuan barna goazela, sasi-naasi batean sartuak gerla somatuko dugu orrien itzul-iraul utsetik. Itzaldi, itz-lau, itz-neurtu edo berso begiz joko ditugu; eta izkuntzarik berriz, latin, gaztelani, prantxes, italiano, portuges, gallego ta... euskera: ia Babel-naskaldian aña arkituko dugu.

Baso naastu orretan zer norena dan, jabe-mugak nun finkatuak diran, ez digu liburuaren izen-buruak garbituko. «Dalo a luz D. Martín de Lardizabal y Elorza»: ori duzute guzia. Naikoa adierazten digu segurarrak ez dala bera sail oien jabea. Izenaz areago, gaiari dagokionik, ala-olako bereizkuntza nabarmentzen zaigu srpegi-orri orretan. *Oracion Funebre* alde batetik, eta «*Alguna noticia del aparato lugubre* que se dexaba ver en la Iglesia», bestetik. *Oracion Funebre* zer daiteken, argi dago; baño beste «Aparato Lugubre» ori? Itzaurrean barna abiatuak, *Oracion Funebre* ori idoroko dugu berriz ere, ta «Poesias que adornaron el Tumulo», gañera; «Oracion Funebre y demas adornos ingeniosos», geroxego; «Primores de las manos» (zerraldo aundia) y «Primores del ingenio» (olerkiak), azkenik. Beraz, Salamanca'ko jesuiten elizan, Clerecia aundian, illetak dira ta, zerraldo aundi bat estaliz, olerki-mueta guziak ipiñi dira ta itzaldi bat eman.

Argitaratzalleak begirapen eta itzal aundiagoa dio Illeta-itzaldiari Olerkieri baño. Guretzat, ordea, besterik izango da. Norena da Itzaldia? Norenak Olerkiak? Norena, batez ere, euskal olerkia?

IV

LIBURUXKA TA ILLETA-ITZALDI MUGATZE

Noizkoa. «Lunes 27 de Noviembre de este año, celebró el Real Colegio de la Compañia de Jesus de esta Ciudad... las Exequias por la temprana... muerte de nuestro Joven Monarca Don Luis Primero de este Nombre...» (Itzaurre asiera) (3).

Pelipe V-garrenaren seme Luis erregea 1707-garren dagonillaren 25-ean Madrillen jaio eta, amazapi urte geroago, 1724-an dagonill beraren azken-egunean eta Madrill berean il zan baztangaz edo, orduko

(3) Lardizabal'en *Oracion Funebre* deritzan liburu ontatik zerbait aitatu ta zer-nun dagon adierazi nai dutanean, gutxi gora bera eta al dan moduan egin bear, ez bai-darama orriak kontatzeko zenbakirik.

batek dionez, «de la activa malignidad de Viruelas». Amazazpi urteko gaztea, zazpi illabetez errege izanda, itzali zan.

Lardizabal'ek dion «lunes 27 de Noviembre de este año» ori, jakiña dago erregea ildako 1724 urtea bera dala. Urte orretako azaroaren 15-ean ospatu zizkion illetak Salamanca'ko Unibersidadeak, eta ill eta urte bereko amasei-amazazpitan Toledo'ko uriak berak. Ikastetxe Nagusiak baño amabi egun geroago, eta Toledo'k baño amar-amaika egun atzerago, baño beti ere 1724 urte orretan ospatu zituan errege-illetak Larramendi'ren bizileku dan jesuiten *Real Colegio*'ak Salamanca'n. Ez, iñolaz ere, ilda amabost illabete geroago. Gauza garbia ori.

Norena. «Dixo la Oracion Funebre —darrai Lardizabal'en itzau-reak— uno de los PP. MM. (Padres Maestros) de dicho Real Colegio, a quien professo particular afecto, y amistad, por ser paysano mio...»

Dana ez ba da ere, ez da gutxi esatea. Esandakotik atera dezakegu jesuita euskalduna ziur, eta gipuzkoarra or nunbait, dugula itzaldi-jabea. Baño erdi-argitan gera oraindik. Liburua barna aurre-aurrera goazela, azken-lerroetan ematen zaigu argitasun osoa:

«Finalizóse esta gravissima funcion, con la Oracion Funebre, que dixo el Rmo. P. Manuel de Larramendi, Maestro de Theologia en su Real Colegio...»

Elkar-maite: Errikidetasunak eta, Ciceron'ek ainbat goratutako, Elerti ta Jakituriaren aidegoak alkartuta bizi dira Salamanca'n bi gipuzkoar argi auek. Larramendi'ren aldetik ezaguna zaigu bere griña ori. Euskaldunai euskeraganako ez-jakiña ta zabarkeria «perdonoles mucho, que algo ha de poder el paisanage» (*Discurso*, 3 orr.) Lardizabal'ek, beretik, ao-bete aitortu digu andoaindarraganako ixuria ta makurra: «...á quien professo particular afecto, y amistad, por ser paysano mio, y por sus amables y lucidas prendas, que me desobligan de recurrir al no sé qué de la sympatía» (Itzaurre).

Etzuan griña orrek Lardizabal lotu, laneratu baizik.

«Esta circunstancia me movió, á desear vivamente que los rasgos de tan eloquente Elogio, no se contentassen con la passagera impresion de los oídos; y también, que el todo de aquella gran funcion, se hiziesse mas publico en la estampa...» (Ibid.)

Orra segurarraren xedea. Gero, gogoaren atzetik pausoak, jesuitetara doa, auek esku-iskribuak argitaratasmorik ote duten:

«Con este deseo procuré indagar, si la Oracion Funebre, y Poesias que adornaron el tumulo, se darían a la estampa...» (Ibid.)

Ezezkoa eman diote jesuitek: ez dutela, alegia, ezer argitaratzeko asmorik. Zergatik ez?

«...y pude entender que en el dictamen del Real Colegio, eran aquellas, tan ceñidas demonstraciones, cotexadas con su deseo, y obligacion amorosa, que no hallaban motivo alguno para tener la seguridad de exponerlas á la luz publica, sin que padeciessen la nota de cortas» (Ibid.)

Izan ere, Unibersidadeko illeta-itzaldia jesuitena alako bi da, olerkirik gabe soil soilik ba dator ere. Toledo'koa zer esanik ez: iraun ere, bi egun iraun bait-zituan, eun da irurogei ta zortzi (168) orrialde aundi betetzen ditu. Laburra oien aldean jesuitena: irurogei (60) orrialde, itzaldi, olerki ta guzi. Egia da Lardizabal'en bilketa-lana motz gelditu dala; ez ditu jesuiten idaz-lan guziak eskuratu aal izan.

Etsi, ez du goierritar setatsuak ezezkoakin etsi. Adiskide artu bat bidaltzen du esku-iskribu aien billa:

«Con esto me determiné valiendome de la industria de un amigo, á recoger la Oracion Funebre, y demas adornos ingeniosos, con el pretexto de cebar el gusto, y inclinacion que tengo á semejantes primores. Conseguilo, aunque no con logro tan cabal como esperaba, por haberse adelantado muchos á pedir hasta los borradores. Este es el motivo, y origen de esta obra...» (Ibid.)

Bilketan moxorro ibiliak eta egileen baimenik gabe argitaratzeak zimiko edo kezka-antzeko zerbait ematen dio legelari edo Kodigo-maixu neurritsuari:

«...aunque me queda el escrupulo, que no habiendo pensado sus Autores, pudiessen publicarse estos papeles, sientan mi atrevimiento en exponerlos á la luz publica, sin aquella ultima mano, que dá airosa proporcion á lo que se entrega á la prensa» (Ibid.)

Ez du luzea kontzientziaren eldua. Goierritar bizkor onek bereala topatzen du xuloa, bere kezkarik igesbide emateko:

«Mas el comun aplauso, me dá aliento para ejecutarlo, aunque sea á peligro de malquistarme con las reglas de la atencion cortesana» (Ibid.)

Noiz ta nun argitaratu? Papel-billa orren arduratsu ibilirik, noiz lortu zun liburuxka ateratzea? Bilketa, itzaldia emanda bereala asi zuan, noski. Argitara-bearrezko estu ta larriak eraman ote zuan ba Lardizabal

noiza ta nuna jatera? Orrelako zertzelada ta zernolaz obeto osatuak ageri zaizkigu alboko beste liburuxkak, auzoko Salamanca-universidadekoa batez ere. Alare, zalantza aundirik gabe finka dezakegu mugarría: 1724 urte ondarrean. Gañera ere, liburuxka aundian ondoko zortzi liburuxkak, bakoitza bere adiñaren arauz edo berrienaz aurrera ipiñiak, ikusten ditugu. Ez ote zuan Lardizabal'ek bere au, berriena zalako, aurren aurreneko ipiñi?

Moldiztegi: Inprimatzallearen izena dugu azkenik ixilik utzia. Eugenio García Honorato izenakin bete dezakegu utsune ori, kezka aundirik gabe. Etxe orretan moldatua dago, lau urte geroago, *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España* liburua eta, ona emen gure argibidea, idazti orren marrazki eta dibujoak Lardizabal-liburuxka onen berdín berdiñak dira.

Latin-itzaldia: Latiñez dago Larramendi'ren itzaldia. Amasei orri beteko latin txukun eta dotorea; idazkeraz poeten urrerragoa, agian, erretorika-maixuena baño; gunaz eta burubidez, orduko gerundianismoaren jite txoroskil eta antojagarririk gabea. Sermolariak joka-bearreko bidea Larramendi'k garbi zekusala dirudi, bere denborako askoren aldean. Geroago, bere Loyola ontan, pozak izango da bere liburuek orduko predikariei bide-ematen ari zaietelako «para predicar con más decencia y eficacia la palabra de Dios».

Dagoneko, Larramendi teologi-maixuaren alkietan exeritzen da José Isla, *Fray Gerundio de Campazas*'en aita. Beraz, Larramendi, bere izen jatorra estaltzeko, «Gerundio de Makillaga» izen-ordea erabilia izanik, ¿ez ote zion liburu sonatuaren izen parregarria maixuak ikasleari, Larramendi'k Isla'ri, piztu?

V

OLERKIAK

Azaroaren 27 astelen au, Illeta-itzaldiari esker, Larramendi'rentzat bere Salamanca'ko egun aundia izan ba'zan ere, ez ala guretzat, geroko euskaldunontzat. Liburu-izenaren bigarren zatia Lardizabal'ek, bigarren mallako bezela, letra xeegoz ezarri ba'zigun ere —*Oracion Funebre* gañetik nagusi eta «Y alguna noticia del aparato lugubre» azpitik mendeko—; azpiko au noski izen-buru ta nagusi ipiñi izango genun. Izen-buruan aña itzaurrean ere nabarmen zaio argitaratzalleari, Itzaldia duala illeta auetako puska ixtimatu ta izenduna.

Itzaldia izan ere elizkizunaren muina. Olerkiek etzuten ortarañoko eginkizunik. Zerraldo aundia estaliz, artez eta esku-egokiz ipiñita, olerki-erakusketa gisa egoten ziran. Unibersidadeko elizkizuna olerki-gabea izan zan. Errege-ikastetxeko illetak Unibersidadekoen ondorengoak izanik, jesuiten olerkiak izan zirala Salamanca'ko aurrengoak, diosku Lardizabal'ek:

«Van en primer lugar los Epitafios, y Poesias Cronologicas, por averse merecido el primer aplauso, ya por que fueron las primeras que vio Salamanca en las Exequias de nuestro Real Monarca...» (Erderazko olerki-saillaren asieran).

Clerecía elizan gera. Oraindik ez da Larramendi kurpittora igo. Begi-emaiegun bitartean, segurarra cicerone, zerraldo ta olerkieri.

«En el primer cuerpo (zerraldoarenen) (que excedia la altura de un hombre) se veian gran numero de ingeniosos Geroglificos, de Epitafios Latinos, y Castellanos, Poesias Cronologicas en ambos idiomas, sin muchos otros generos de ayrosos metros, que ocupaban tambien el segundo cuerpo...» (Expression).

Berrogetasei (46) olerki zenbatu ditut danera, eta oietatik ogeitamar (30) latera-gaztelerak daramazkite, erdi bana; prantxesak eta italiakoak, bana; gañerakoak, gallego, portuges, euskeratan daude. Liburuxkarik geiena olerkiok betetzen dute. Irurogei (60) orrietatik, asierako *Expression*-aren biak eta Itzaldiaren azkeneko amaseiak (16) ezik, gañerako danak olerkientzat dira. Errosario-aleen gisa, tarteko azalpen-ariz erantsita eman zaizkigu auek. Irakurraldia bukatzeko astirik gabe, aixa oartzen da bi luma ibili dirala lokarri-azalpen oiek idazten. Akademi-patxarakoa bat, jostalari-zirikalaria bestea. Lardizabal ta Larramendi eskuz esku. 1728-koa uste genduan Larramendi euskalaria jaioa dugu dagoneko, 1724-rako. Liburuxka ontan ageri zaigu, iadanik, erne-muiñean tantai, geroko idazti nagusietako Larramendi giz-aundia.

Ez derizkiogu lanbide nekeza segurar eta andoaindarraren saillak mugatu ta bata besteagandik bereizteari. Bere kerak salatzen du Larramendi: idaztekoan, bere idazkerak. Muga ori italierazko *Ottava*'ren ondoren finkatu bear da. Arañokoa Lardizabal'ena, ondorengoa Larramendi'rena dugu.

Segurarrak aurkeztu dizkigun olerkiak

«...se dexaba conocer eran efectos de la razon, y el buen gusto, que saben sin pasar los terminos de la circunspeccion, hazer armonioso el sentimiento».

Etorriaren, eskolaren eta artearen ondorioak izaki eta, «primores del ingenio» deritzaie Lardizabal'ek.

Bigarren sallekokoak, ostera, Larramendi'ri egozten dizkiogunak, alegia, ez dira gisa ortakoak. Emen, eskolak eta patxarak ez-baizik, beingo-beingoko bolarak irakin du olermena ta purrustean olerkiak ilki, gure bertsolarien modura. Ona emen, oker ez ba'nago beñepein, mendi-bizkarrak ixuri-alde batera ta bestera urak banatzen dituan bezela, olerki-sailla alde-bitarutzen duan Larramendi'ren pasartetxoa:

«CON ESTOS, Y OTROS LUGUBRES PRIMOROSOS ADORNOS se ostentaba el magnifico Cenotaphio, llamando la curiosidad a mirarle, y al mismo tiempo infundiendo respeto con apacible ceño, y aun tambien inspirando numen poetico a los que se acercaban. Y assi se vió por los efectos...»

Emendik asten dira bat-bateko olerkariak, Larramendi adar-jotzailleak aurkeztuta, beren olerkiak aletzen: Illaran datoz: «un Professor Academico, un Astrologo... de un furor entre Poetico y Astrologico; un Golilla, de estos de Musa lega, pero aseada; una tropa de labradores («estos trahian picadas las Musas no se si con agujadas»); otra cuadrilla de Labradores, y Labradoras; y el capataz que, pareciendole que le iba la honra de su Lugar, sacudió las guedejas; un militar, de aquellos que sin dar zelos a Marte, tienen sus correspondencias con Apolo...»

Sail guzti onen azken-pasartea, ordea, atzera berriz Lardizabal'ena da. Orrela, Larramendi'rena Lardizabal'arenean zirituta arkitzen da. Erdi-banako lana dute, gutxi gora bera, olerki-aurkezte lan au. Ori ezik, Itzaldia ta *Evs cara* olerkia bi itzulpenekin bereak ditula, gañera ere, Larramendi'k.

Zertzelada bat, zerraldoan guztiz nabarmen ikusi izan zana, dakar Lardizabal'ek; eta Larramendi'ri topo bortitza egin oi ziotenetakoa bai-da, onek euskerari eman-omen-zion jokabidea konprenditzeko azaldu bear da emen.

«*En el primer cuerpo* (que excedia la altura de un hombre) se veian gran numero de ingeniosos Geroglificos, de Epitafios *Latinos, y Castellanos*, Poesias Cronologicas en ambos idiomas, sin otros muchos generos de ayrosos metros, que ocupaban tambien el *segundo cuerpo*...» (Expression).

Orduko Castilla ohore-zaleak toki banatan bereizi ditu Artearen emaitzak ere, nor nor dan begi-zorrotz begiraturik. Zenbat kale-etxeetako gisa, —nagusi-jendea bee-aldeko etxe-bizitza erosoetan, arruntak

goi-aldeetako erreusagoetan—, Latin-Gaztelania izkuntz aundiki landuek jabetu dira zerraldoan bee-parte ikusgarrienaz; ganbara ta ollo-kotan sailkatuak izan dira gañerako izkuntzak. Egotzia, erreusa, ikusi du Larramendi'k bere euskera; izkuntza aundiki oiek baizik ez bai'liran apainduri-garri. Mariana'ren iraiña ez da liburuan erantsita gelditu, noski; urkoen mingañek jaurtitzen dute bal-bal eta Larramendi egosita, erreta dago, itxura. Geroagoko Larramendi mokokariaren jokaera ona emen, aldez aurretik.

VI

EVSCARA OLERKIA

Goragoko olerkarien ondoren, beste lau ateratzen ditu Larramendi'k bat-bateko bertsolari:

«Donde mas se logró la inspiracion poetica del Tumulo, fue en *cuatro Estudiantes*, que casualmente se juntaron a contemplarle, y cuya ingeniosa amenidad sirvió de entretenimiento, y diversion a todo el Concurso en medio de circunstancias tan lugubres. *Uno era Guipuzcoano*, otro Gallego, otro Portugués, otro Castellano viejo: los quales viendo que andaba desmandada la Poesia por otros gremios, trataron de llamarla ázia sí con el cebillo, siempre grato a las Musas, de *juveniles cultos años*. Convinieronse en poetizar el assumpto del comun dolor, cada uno en su propio idioma, glossando algunos versos de Virgilio 6, Aeneid. sobre la muerte de Marcelo Principe Romano, versos llamados antes aureos, por el bolsillo de doblones, que interesó su Autor, y aora los mas aureos, por los dorados Scholios de nuestros Licenciados. El guipuzcoano, despues de aver afectado una discreta bozalidad en romance, diciendo, *Rey Luis tener gloria, España sentir, gemir, morir*, con aplauso de los oyentes, que observaron lo oportuno de los infinitivos, porque el objeto no admite otros tiempos; tomó por tema aquel sesqui verso, *Ostendent terris hunc tantum facta, nec ultra Esse sinent*. Sobre esto dixo, que se le figuraba la vida del Rey a modo de aparicion Celestial, cuya propiedad es consolar mucho, y durar poco; o como una preciosa Reliquia, ó bella imagen, que guardada en un camarín, no se

muestra más que por un breve rato, y luego, corrida la cortina, se recoge».

Gipuzkoar ixturiantek, entzuleeri bere eskolagabe ta infinitivu aiekin parr-eragiñik, bere izkuntza jatorra mendeka ta apendu nai du besteen txaar-etsitik:

«Mas, para que se viesse, que la Lengua santa del Vascuence sabe avenirse con las Leyes metricas del Parnasso, se explicó con mas gala con esta *Evs cara*:

Erregué bat Cerutíc
Madridén aguertú zán,
.....»

Ezaguna dugu euskaltzaleak amabi ahapaldiko olerki au, 1729-an Larramendi'k bere *El imposible vencido* an ezarri zunez geroztik. An bertan dio noiz ta zergatik egiña dun ere:

«...aquella *Euscara*, que se hizo en Salamanca en la muerte de Luis I» (III, cap. VI, 2.º, 383 orr.)

Luis erregea milla zazpireun da ogeita lauan (1724) illa izanik, urte orren azkenetakoa da *Evs cara*, Lardizabal'ek dion «Lunes 27 de Noviembre de este año» ko errege-illetarako sortua, zearo esateko.

Noiz argitaratua? Lardizabal'en idazti au ez-egaguna zitzaigularik, *El imposible vencido*-kin, eta onen barruan, argitaratua uste izan da olerki ori, esandako 1729 urtean. Bost urte geiago erantsi bear zaizkiola, ordea, *Evs cara* orri, ta 1724-an azaldua dala, ziur erakusten digu segurar idazleak.

Norena? Norena zanezko arazorik ez da izan oraindañokoan; orain ordea ba dirudi, iruditu, auzia sartu diola Larramendi'k. Lardizabal'en liburuxkan digu andoaindarrak *cuatro Estudiantes* zirala, bakoitzak bere olerkia jaulkitzeko, zerraldo-aurrean bildu ziranak; Musatxo alaiak biotz-pilpiraz berengana eratortzeko lañeko ikasle gazteak izan ere, barren:

«...los quales (estudiantes), viendo que andaba desmandada la Poesia por otros gremios, trataron de llamarla ázia sí con el cebillo, siempre grato a las Musas, de *juveniles cultos años*» (4).

(4) Leenengo eta beingoko irakurraldi artan, «estudiante gazte» itzen soñua belarrietan nualarik, Larramendi'ren Berthier'ganako eskutitz artara joan zitzaidan nere ustea. Salamanca'ko jesuiten Real Colegio bere ontan Erregeari egin-illetaz, eta jesuita batek esandako euskal poesiaz, ari zaió Berthier'i Larramendi. Baño zertzelada

Ez da baña *ikasle* Larramendi, dagoneko. Maixutzan ari zaigu Salamanca'n. Maixurik gazteena bera noski, eta beraz, uzkar-maixu ezarria *Catálogo-an*; baño maixu beti, alare. Adiñez berriz, *Catálogo-an* betiko bere «vires robustae» aiekin, indarreko gizaseme ageri ba'zaigu ere, oso nolabaitekoa da aren gaztetasuna. «Kristo'ren urteak» —mutilzar siñale Erriak finkatu oi duan muga— igarota, ogeita amalau-garrenean bai-doa.

Gañera ere: aita-gabea, zurtza, kalean benturaz arkitua bai'luan, aurkeztu digu olerki au geroago bere gramatikan:

«...aquella Evscara que se hizo en Salamanca...» (383 or.).
«Daré aora algunos exemplares (de metros) que he avido a las manos...» (ibid.)

Esate aldera esanak, ordea. Eta esanak esan, leengoan eta betikoan dago gauza: Larramendi olerkiaren jabe. Ez du Larramendi'k iñoren lumaz bere burua apaindu. Gramatikan, olerki onen lagunak jabledunak beren izen-da-guzi aitatu zitun. Au berea izan ez ba'lu, erantsiko zion bere jabe-izena. Ezik, ez dula egin, berea dualako. Besterena izatera, esan bear zigun norena, jakiñean zegon-eta. Zor zion egilleari bere aitamena; olerki au «De la Poesía de que es capaz el Bascuence» adierazpen iza-nik (!), egillearentzat goragari bait-zan alako aurraren aitatzako azaltzea. Ortik Larramendi'k bere izena estali, arto bero usaia zeritzaiolako bestela (5).

Gañeratikoan, ez «gazte» ez «estudiante» itzek ez gaitzakete beren aldetik geiegi edo batere kolokatu. Irudipenezkoa, fiktziozkoa, bai-da pasarte ori dan-dana. Ez dago irakurri besterik, egiztatzeko. Ze esanik ez, *El imposible vencido-an Evscara* ontaz zuzenean edo fiktzio-gabe ari

guztiok bat-etorri arren, bi gertaera dira auek, eta ez dute elkarrekin ze-ikusirik. Okerr-ustea zuzentzeko, eztago Pita'ren *Galería de Jesuitas Ilustres*-eko pasartea arretaz irakurri besterik:

«Además, en los funerales que hizo, y después imprimió en Salamanca nuestro Real Colegio y Escuela, al Rey difunto Felipe V y dedicaron al Rey presente; entre los poemas que trae en latín, griego, castellano, francés, portugués, italiano, inglés, se imprimió uno con nombre de *Endechas reales* en vascuence, siendo su autor un jesuita castellano, que ha aprendido la lengua por fundamento con Arte y Diccionario (245 or.).

Gaztelar jesuita ori nor zan jakin nai dunarentzat, ona Fita'ren oarra:

«¿El P. Bernardo Recio? Sábese que mientras enseñaba latinidad en Oñate, aprendió en tres meses el vascuence con tanta maestría que se juzgó habilitado para confesar y predicar en aquella difícilísima lengua» (Ibid.).

(5) Nola sinista zezakean orrenbesterañokorik Larramendi'k, sinistu ba'zuan beñepein, besterik da. Bere poesiakiko usterik onenean zegola dirudi, barren; beste idazle askori gerta zaien bezela. Iritzi zorrotz bat, ongi merezia ere, artu du Larramendi'k: «Sus lamentables incursiones por el campo de la poesía seria» (Michelena, *Historia de la Literatura Vasca*, 97 or.).

zaigularik, «xoxotera bidali» digula bere «estudiante» ori Larramendi'k, eta ordeze «Poeta» itza sartu. Bazekian ondo Larramendi'k nungo amaren seme zitun bateko «estudiante» eta besteko «Poeta» oiek.

Euscara olerkiaren egillea eta *El imposible vencido*'ren aita, biak bat dira. Olerkia Gramatikan ezartzeko erabili-itzak berberak arkitzen ziran, bost urte leenagotik, Lardizabal'en liburuxkako pasadizu berean. Eta ez iru-lau itz, noski: batean berrogei ta sei itzekin adierazten zaiguna, orixe bestean ere berrogei ta sei berekintxe adierazten zaigu:

«El Guipuzcoano... tomó por tema aquel sesqui verso, Ostendent terris hunc tantum fata, nec ultrá— Esse sinent. Sobre esto dixo, que se le figuraba *la vida del Rey á modo de aparicion Celestial, cuya propiedad es consolar mucho, y durar poco; o como una preciosa Reliquia, o bella imagen, que guardada en un camarín, no se muestra mas que por breve rato, y luego, corrida la cortina, se recoge*» (*Oracion Funebre*).

«Sea el primero aquella Euscara, que se hizo en Salamanca en la muerte de Luis I, glossando aquel sesquiverso de Virgilio 6. Aeneid. Ostendent terris hunc tantum fata, nec ultrá— Esse sinent. Glossa, en que se le figuró al Poeta la vida del Rey a modo de...» (*El imposible*, 383 orr.). Ondoko guzia gañekoan lerropetuakin bat dator, itzez itz.

Lantegi berdiña genduke beste pasarte batzuekin ere. Adibidez:

«se explicó con mas gala con esta Euskara» (*Orac. Fun.*).
«...pero siempre quedó con mas gusto y gala en el Bascuence» (*El impos.*, 385).

Euscara olerkia ta illeta-itzaldia buru ta luma beretik jaulkiak ditugu, Itzaldiko esanakin konpondu liteke, olerki oso-oso ez bada ere, amabi ahapaldietatik amar bai beñepein. Itzaldian botatako azia erein da olerkian ere (6).

(6) Ikus zagun ahapaldiz ahapaldi:

1. «Erreguè bat Cerutic. / Madridèn agertù zàn
Optatus e Coelo Hispanis demissus est Ludovicus.
Nolà noizbait ainguerù / Eder bat guertätzen dà.
Angeli instar mentem crystallo puriorem...»
- 2-3. Roi-Soleil edo Eguzki-Erregeren odoleko semea, «perlaz eta rubiez» aurpegia dizdiz duala, ematen digute 2-3 garren ahapaldiek:
Regius Princeps novis radiis lumen ipsum decoraverat...; quemadmodum exorientis Phoebi facies... haud aliter Regius adolescens hispanicos tractus recreavit.
- 4-6. Burni illuna ez-baña urre oria eman nai liokete giputz-mendiek Erregeari. Ameriketatik itxas-ontziek urre ori dakarkiotelako, españarrak aberastu-pozez dago erregea.

Jabetasun-arazo au areago astintzea erromatarren «acta agere» ba'deritzaiagu ere, «estudiante gazte» bat zalazko aitorrak iñor zalantz-balantz ba'lerabil, bertatik noa orduko «gipuzkoar estudianteen» izen-zerrenda ematera:

1723'ko Catálogo'an:

34. Petrus Iriarte, Fontarabiensis, n(atus) 1699; studuit theol. 2 annos et studet. Teologi irugarren urtean ari da, beraz.
37. Iosephus Vicuña, azpeitiensis, n. 1699; studuit theol. 2 annos et studet. Irugarrenean ari da, beraz.
41. Ioannes Lascurain, Anzuclensis, n. 1696; studit theol. unum an. (num) et studet. Bigarrenean ari da, beraz.

1726'ko Catálogo'an:

58. Iosephus Jauregui, ex Mondragon; n. 1695; theol. agit secundum. Bigarrenean ari da, beraz.

Araba, bizkai ta napar-estudianteen aldean, sail urria gipuzkoarre-na, Larramendi'ren Salamanca-aldian. Urria berez, eta areago jorratu ta bakandu bearrekoa oraindik, bere urrian. *Catálogo'ak* iru urtez bein

- 7-8. Ceruac, Esferac, goicegui eraman digu erregea; ez da orain ikusten bai alare sentitzen. *Immatura corripere morte. Tenet astra Ludovicus, haud sui obliviscitur officii...*
9. Erregea ilda, España illunpetan datza, eklipse-aldian bezela. «Occubere, mihi credite, nostra cum Ludovico gaudia», dio, ta españarrak «omni moestitia plenissimos» dakusazki, «exinctas hispanorum delicias».
10. Lore ederrez kuin zegon zelaia, lore-obi biurtu du iparrak. «Sors infanda... Regum omnium florem eripuit».
11. Ona, berriz ere, «burni-edade illunak» urre-aro itxaropenezkoari txanda kentzen dio. Olerkiko itz auek, pareko latin-itzekin baño obeto berdintzen dira pasarte osoan esanaiekin, edo itzaldi osoaren zentzu eta zuzen-bideekin. Zerua aserre dago España'kin eta, itxaropen sor-berriak itzalirik, gaitz berriak datozkigu gañera. «Nondum Hispania expiaverat crimen, ultra nobis legendum erat...». «Immaniora exorta sunt mala dejectos pridem animos afflictare».
12. Olerkia, alegi gisa, bere erakutsi ederrez bukatzen da: —«zerutar gauzak lurrean gutxi irauten». Zerurako eldua, maotua, erakusten digu itzaldiak Erregea; aingeruago gizon baño; bizi ere ez du nai kondizio batzuetan ezik: «Animam fere agebat Ludovicus, sane paratissimam e corpore proficisci. España'ko okerrak opari edo ordain bat eskatzen zuten: orra Luis erregea aldirreko eriotzak arrapatu ta gora eraman. «Immatura corripere morte; tenet astra Ludovicus».

Olerki-Itzaldi ok buru batetik sortuk dirala, neretzat zalantzik ez. Parez pareko itzak esanaren alde ba'daude, areago oraindik itzaldi-olerkien baterako ta alboz-alboko ibilia ta joera.

azaldu, ta teologi-ikasketak lau urte irauten zuala, 1723-1726-koek digute emen ajola, 1724-ko ikasleen berri jakiteko. Urtearen asieran edo bukaeran erteten ziran Catalogoak, eta «ineunte» edo «exeunte anno» itzekin aditzera ematen zuten beren urte-partea edo noizkotasun-zertzelada. Ez digute ordea bi oiek aditzera eman; eta ez emanik, gureztat berdin izan ditezke urte oien asierakoak edo bukaerakoak.

Beraz, 1723'koa urtearen asierakoa izatera, ez dagoz Iriarte ta Vicuña Larramendi'kin Salamanca'n 1724-azaroaren 27- an; aldegiñak ziran, beren teologiari etsipena emanda. Ostera, ordea, Jauregui. 1726-ko Catalogoa urte-azkenetakoa baldin ba'da, ondarrabitar ikasleak etzuan *Euscara* ikusi erregearen illetetan. Ortan, ez-baikoak ditugu lautatik iru; Lascurain bakarrik segurua.

Areago ordea: laurak seguruak izatera ere, beren errietako kutsu ta tankera ezaguna olerkiari erantsirik izango ziotela bidezkoa da pentsatzea; iru beñepein «mugatarrak», eta azpeitiarra ere izketa-modu ezagunekoa, izanik: bizkai-euskalkiaren muga-aldekoak antzuelarra ta arrasatearra, napor-iztuna ondarrabitarra. Nik neuk ez diot olako aztarrenik somatu; izkelki-ikasi batek aixa argituko luke duda-muda au. Orra azkenik zertan liraken, alde batetik *Larramendi'ren ikasletza*, ta bestetik *ikasle gazteen gipuzkoartasuna*.

Baña eztabaida utzirik, alperrikakoa zan ere ta, goazen zerraldo arrigarri aren ingurura, lau estudianteek olerki-norgeigoka astera doaz eta.

VII

OLERKI-NORGEIGOKA

Eta leenik, gipuzkoarrak, bere infinitivu aiekin gañekoai naiko parr-eragiñik, «despues de aver afectado una discreta bozalidad en romance», bere «Lengua santa del Vasquence» orretan *Euscara* olerkia ematen du.

Gallegua, ondoren. «Añadió, que la Lengua Gallega de puro cortés no se avia cultivado tanto, como pudiera, por ceder el lugar, aun en su patrio suelo, a la reynante Castellana: pero que no obstante explicaría el mismo pensamiento... en estas *endechas*.

Choren os meus dous ollos
(Mal fadado de min!)

.....

Portugesak, «...esponjandose, y avultando los labios, dixo, que la lengua Gallega no tenia el sonido tan masculino, y tan señor, como la Portuguesa: que esta debía ser oyda, mas que todas, en assunto de tanta gravedad».

Gero, gaztelarrakin ekiñaz, «...fue providencia del Cielo arrebatat tan presto al Rey... para tener a raya la ufanía, y orgullo Castellano, que, si lograra mucho tiempo tal Rey, pudiera dar zelos, no solo á las Naciones vecinas, sino al Cielo mismo»:

«Sahio de sí Castelha,
E não se diz onde anda»:

.....

Txalo biziak jo dizkiote portugaldarrari, «...unos porque entendieron los conceptos, otros porque gustaron del tono pomposo, y Senatorio, y de aquel rebolcarse en la boca las palabras, antes de salir al ayre».

Txaloak moztu ditu «...el Castellano Viejo, que avia estado mesurado, y taciturno, avisandolos, que reservassen atenciones, y respetos para la magestad del Lenguaje antiguo Castellano, de cuya fuente eran arroyos, aunque con sus particulares Dialectos, las Lenguas Portuguesa, y Gallega, sin heredar no obstante su seriedad por entero. Añadió que esta Lengua, cargada de años, y merecimientos, y venerable por sus canas, era la mas propia para assumptos heroycos: que en ella razonaban con eloquencia varonil los Ricos homes, y Fijosdalgo, en tiempo de Nuño Rasura, y Lain Calvo, quando los Poetas Castellanos rizaban mostachos, y pelo en pecho, y no aparecian en el Parnaso, sino con lança en ristre, y con almete, gola, brazaletes, cota, escarçelas, calças atacadas, y por gala borceguies marroquies, ganados á los Moros á manopladas de buen pulso: que esta gloriosa Lengua era la que debía prestar omenage á la memoria de un Rey, tan de corazon Español...»

«Non me tollais las mientes,
Dexadme lembrar,
Maguèr que lastimeras,
Las cuitas de mio mal».

.....

Gaztelar agure batzuk negarrez, antziñako erderean mintza izan zaielako. Eta ez negar bakarrik: «Algunos viejos... no se hartaban de besar el ayre, que venia herido del *maguèr*, diciendo que este, y otros vocablos contemporaneos, se debieran embalsamar, para que durassen incorruptos hasta el fin del Mundo».

I ba'aiz, gu ere bai! Mintzatu dira laurak. Ixildu, Gaztelar Agurari jo-txaloak. Baña dakigun-Larramendi or dabillega, elerti-festa au ezin ortan geratu. Ondoko erdirako edo desapioa fede. Beraz,

(«un Golilleja mozalbeta, que tenia traza de oficial de pluma, encarando al Estudiante Guipuzcoano, le dixo: seo Licenciado, en los versos de los otros tres, ya hemos entendido algo, y nos consta, que hablaron al caso: pero las Coplas de Vm. van sobre su palabra, y no nos consta, si venian á la muerte del Rey, ó del Gran Tamorlan, ni si eran de Exequias, o de Bodas».

—«Seo Guapo (respondió el Estudiante, algo de mal humor, pero contenido por el respeto del Tumulo, y por el sagrado de la Iglesia). Yo no tengo la culpa de su ignorancia de Vm., como no la tendria Homero, si al recitar su Iliada en Griego, tuviera un oyente de ese caracter. Mas, porque no se presuma, que estoy tan pobre de Idiomas, como Vm. de urbanidad, ni que mi Musa está ligada á solo el hechizo del Vascuence, diré en verso Latino Elegiaco los pensamientos mismos, que antes dije en mi propia Lengua, traduciendo fielmente las Coplas de Vascuence, y dando á cada copla su Distico por el mismo orden».

«Madriti elapsus Coelo Rex adstitit alto,
angelus ut subitis suescit adesse modis».

.....

Latin-itzulpen au eta ondoko erderazkoa, biak sartu zituan Larramendi'k, bost urte geroago, bere *El imposible vencido*-an (385-388 or.); baño emen pake-uso dala, an tiro, zitalkeri ta griña-ontzi uts dabil. Ara berriro eraso:

«Mas porque todavia no sabra Vm. si viene al caso, ó no, pues para Vm. y otros de su cultura, el Latin será Vascuence, y el Vascuence Latin; sacare á Vm. de cuydado con otra no menos fiel traducción en Castellano, siguiendo á mis compañeros en el metro de Endechas, cada una de las quales será expression literal de su Copla Vascuence, tambien por su orden: y no encresparé mucho el estilo, porque no demos en el mismo escollo».

«Un Rey todo del Cielo
se aparecio en Madrid,
cual suele aparecerse
tal vez un Serafin».

.....

«Cessó aqui aquella especie de Academia, separandose los Licenciados, y sus oyentes, para hazer lugar á Religiosos de varias Ordenes...: entre ellos (concurrieron) algunos Jovenes de buen ayre, que por el corte de la nariz, y de la frente, mostraban, que no eran forasteros del Parnasso».

Bidenabar: Pasarte luzeak sartu ditut. Asmoz eta apropos sartu: bidenabar erakusten bai-digute ze giza-girotan sasoiu dan Larramendi euskalari, ta ze pentsaera arro erdañariari jarki izan zaion bere euskeraren alde.

Latera ta gaztelera agertzen dira, orduko izkuntzetan, gallen, nagusi, buru-jantzi, Españi'rako beñepein. Izkuntza bi otan egin da (prantxes-italianozko bana ezik) zerraldoko olerki-erakusketa ikusgarria. Begientzat urrutiegi, giza-betetik gorako illobi-zirrindan ezarriak izan dira gañerako bertso-lanak. Atakatik, ez ate nagusitik, sartu da barrura gure Euskera. Gallenenen pare ikusten du ark, ordea, amaren izkuntza, «porque en cuanto se dice contra el Bascuence apenas ay mas que bachillerias y sinrazones, acompañadas de irrisión y desprecio». Orregatik Larramendi'k, «un Golilleja mozalbete, que tenia traza de oficial de pluma» sesiorako asmatu ta beroni «con la naturalidad ó intrepidez genial de mi Pais» erasorik, latin-erderetara bere olerkia itzuli ta izkuntza jaiki oien gallurrera jaso nai du euskera, Mariana ta aren potzuan kalaka jotzen dioten igelak ixilarazi ote ditzaken.

Larramendi maixu-berriak erdira erten du. Badiduri egosten egon dala karrera-aldian, bere abotsa goratzeko denbora-zai. Atea zabaldu zaioneko erten du, ta geroko Larramendi gizondua or nun ageri dan gazte askin ontan. «Bachillerias, sinrazones, irrisión, desprecio» oiek zauritua atera da. Euskeran du zauri.

Izen-on uts ortan bakarrik ote dago, ordea, Larramendi'ren euskal arazo guzia? Ezetz esango nuke: ez duala zuritasun eta izen-on garbitze utsa arazo guzia. Atzerakoa bai erantsi, sendo alare, zauri ortan ikutuko dioten atzerritarrai; eritarrai ordea «perdonoles mucho, que algo ha de poder el paisanage; y solamente les digo que hablen mejor la Castellana y estudien con reflexion su misma Lengua» (*Discurso*, 3 orr.).

«...estudien con reflexion su misma Lengua»: euskalari zintzoaren jo-mugara begiak, ageri zaigu emen Larramendi. Bere idaz-lanen bidez ori gertatzen ari dalakoan, pozik izango da geroago Loyola ontan:

«Muchos, especialmente de los Nuestros (jesuitak), se han valido de mi trabajo para predicar con mas decencia y eficacia la palabra de Dios y para imprimir algunas cosas de devo-

cion...» (Fidel Fita, *Galería de Jesuitas Ilustres*, XXVI, página 244).

Ta ez dirudi erdaldun erdeñ-zaleen bekozko ta zear-begira utsez, andik geroko urteetara, Euskalerrri-zil Loyola paketsu bakarti artan, ain gogor lanean jardun zezakeanik; beste goragoko ta muiñagoko irrikiz baizik.

Itzuli gaitezen berriro Salamanca'ra, 1724-ko azaroaren 27, astelen, Larramendi'ren egun aundira. Goizeko amarrak dira; Sagardoy napar jesuitak eman du il-meza, ta Lardizabal'en esanez:

«Finalizóse esta gravissima funcion, con la *Oracion Funebre*, que dixo el Rmo. P. Manuel de Larramendi, Maestro de Theologia en su Real Colegio».

ITZ-ONDORIOZ

- . Beraz, Larramendi'rena da, *Oracion Funebre* latin-itzaldia bezela, *Evs cara* olerkia ere;
- .. (iñork zekianik) liburu azaldu-berritik orain berri-berritik eza gutua *Oracion Funebre* latin-itzaldia.
- ... Ezaguna, leendikan ere, *Evs cara*;
- 1729-an, eta *El imposible vencido* liburu-baitan, argitaratua zalazkoa, ordea, gaurdaño iñoren ustetan;
- *Larramendi'ren leen-fruitu*, beronek illeta-itzaldia eman aurretixe, 1724-ko azaroaren 27 goiz-partez beñepein (bezperatik, agian),
- Salamanca'n, Clerecía deritzan elizan, Luis errege-zanaren illeta-zerraldoa jaztekotzat ezarri ta erakutsia, *berez*;
- olerki-norgeigo'ka, *giputz estudiante* batek aoz-eman, *Larramendi'ren esate-moduz*;
- Argitara: Tormes'ko Uri berean, Eugenio García de Honorato'ren moldiztegian, giputz segurar aundizki *D. Martin de Lardizabal y Elorza*'k argitara emana.

LOYOLA,
1966 - agorr. - 21.

Goikoetxea - Maiza'tar Joan,
(Iru-garate)
Euskaltzaindikoa